

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

4057

EBAZPENA, 2025eko irailaren 17koa, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Eusko Jaurlaritzak Murugainen duen telekomunikazio-zentroa Aretxabaleta eta Arrasate udalerrietan handitzeko desjabetze-espeditentearen eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak noiz egingo diren.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburordearen 2023ko irailaren 21eko 369/2023 Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu zen Eusko Jaurlaritzak Murugainen duen telekomunikazio-zentroa handitzeko proiektua, Aretxabaleta eta Arrasate udalerrietan, eta behin betiko onartu zen egikaritzeak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Garai hartan Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu zenak 2024ko martxoaren 20an emandako Aginduaren bidez erabaki zen nahitaezko desjabetzearen espeditenteari hasiera ematea, eta eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea hamabost egunez; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (73. zk.), 2024ko apirilaren 12an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (71. zk.) eta prentsan argitaratu ziren iragarkiak, jakinarazteko zerrenda hori jendaurrean jarriko zela. Horrez gain, erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari eskatzea proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideak urgentziaz okupatu beharrekoak zirela deklaratzeko, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Jendaurrean jarri ondoren, martxoaren 25eko 71/2025 Dekretuaren bidez deklaratu da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak urgentziaz okupatu behar dituela, nahitaezko desjabetzearen ondoretarako, Eusko Jaurlaritzak Murugainen duen telekomunikazio-zentroaren proiektuak Aretxabaletan eta Arrasaten hartzen dituen ondasun eta eskubideak.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoa betetz, ebazpen honen bidez dei egiten zaie honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei, adierazitako egun eta orduan, eta dagokion udaletxera bertaratu ondoren, eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egin ditzaten, eta, hala badagokio, lurrak formalki okupatu aurreko aktak egin ditzaten. Beharrezkoa izanez gero, lursailera bertara joan ahal izango da, interesdunek hala eskatuz gero.

Egintza horretara interesdunek berek joan beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezalako baimena duten ordezkariak; haien titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte (eskritura publikoak, pribatuak, Jabetza Erregistroaren ziurtagiriak edo informazio-oharrak, eta abar), bai eta beren eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu ere. Egoki iritziz gero, perituak eta notario bat eraman ahal izango dituzte, baina hori haien konturakoa izango da. Era berean, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunek eta eskubide erreal edo ekonomikoen titularrek, lehen adierazitako zerrendan agertu ez badira, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte idatziz Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba), aurretiko aktak egiteko adierazitako egunera arte, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 17a.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendaria,
PABLO GARCIA ASTRAIN.

2025eko irailaren 29a, astelehena

ERANSKINA

ERAGINPEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA PROIEKTUA: EUSKO JAURLARITZAK MURUGAINEN DUEN TELEKOMUNIKAZIO-ZENTROA HANDITZEA

ARETXABALETAKO UDALERRIA

Finka zk.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Katastroko datuak		Deialdia Aretxabaletako Udala 22-10-2025	
		Erabateko jaberria	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lur-zatia		
ARE-001	Eneritz Urrutia Aranceta e Iñigo Louvelli Nieves	256 m ²	297 ml	1201 m ²	1201 m ²	1	172	9:00
ARE-002	Eugenio Zubizarreta Arregui	0	264 ml	960 m ²	960 m ²	1	95	9:40
ARE-003	Jose Ramón Murguiondo Mugica	0	68 ml	221 m ²	221 m ²	1	268	10:10
ARE-005	Jose Ramón Murguiondo Mugica	0	326 ml	1131 m ²	1131 m ²	1	277	10:10
ARE-004	Ane Miren Aranzabal Elorza,	0	76 ml	281 m ²	281 m ²	1	94	10:45
ARE-006	Ane Miren Aranzabal Elorza,	0	95 ml	334 m ²	334 m ²	1	93	10:45
ARE-007	M. ^a Asun Elicorobarrutia Iribecampos	0	49 ml	246 m ²	246 m ²	1	170	11:15
ARE-009	Karmelo Azcoitia Galdos	0	63 ml	240 m ²	240 m ²	1	173	11:45
ARE-008	Ana M. ^a , Julián, M. ^a Rosario, Elortza Etxaspe y Mireia y Gorka Irasuegi Elorza, Miguel M. ^a y Fernando Elorza Etxaspe	0	52 ml	187 m ²	187 m ²	1	165	12:15

ARRASATEKO UDALERRIA

Finka zk.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Katastroko datuak		Deialdia Arrasateko Udala 22-10-2025	
		Erabateko jaberria	Zortasun iraunkorra	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lur-zatia		
ARR-1	Jesús M. ^a Otxoa Zabarte	357 m ²	250 ml	899 m ²	899 m ²	4	154	13:15
ARR-4	Jesús M. ^a Otxoa Zabarte	0	106 ml	380 m ²	380 m ²	4	267	13:15
ARR-3	Sotero Olave Uribarren	0	300 ml	1084 m ²	1084 m ²	4	156	13:40
ARR-2	Ana M. ^a , Julián, M. ^a Rosario Elortza Etxaspe y Mireia y Gorka Irasuegi Elorza, Miguel Fernando Elorza Etxaspe	522 m ²	572 ml	2129 m ²	2129 m ²	4	155	14:00